

Alice Leiciagueçahar

“HERRI ELKARGOA PLANTAN JARTZEKO KAPABLE GARA EUSKALDUNOK, OINARRIAK SENDOAK DIRA”

Donibane Garazi, 1956. Europe Ecologie Les Verts (EELV) alderdiko kidea da. Akitania Eskualdeko kontseilaria eta berdeen electeduna Iparraldean. Akitania, Limousin eta Poitou-Charantes Frantziako hamahiru eskualde berrietako bat da. Ipar Euskal Herriko biztanleek eskualdeko kontseilari berriak hautatuko dituzte abenduaren 6an eta 13an. Alice Leiciagueçahar departamenduko zerrendaburua da. Akitaniako Kontseiluko Azpiegiturak eta Hezkuntza sailtan aritu da azken legealdian.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zein da legealdiari buruzko berdeen bilana?

Berdeak PSko Alain Rousseten gobernuaren barnean aritu gara. Gobernuaren gehiengo sostengatu dugu, oposizio lana eginez, oposizio baikorra betiere. Gobernuaren politika, oro har, eskasa izan da. Komunikazio esparruan lan egin du bereziki, funtsezko ekimenik ez du bururatu, alta, egin duen ñimiñoena handizki komunikatu du. Ekologistek ingurumenari buruz hainbat xede finkatu genituen. Gobernuak ikatzaren tasak eta klimari buruzko neurriak iragarri zituen, baina ez ditu bete. Enpresen baldintzak hobetzeko helburuak ere bazeuden, baina enpresen mozkinak ez dira emendatu.

Alain Rousset izanen da presidentea berriz ere eskualde berrian?

Ene ustez, bai. Frantziako presidentea eta Gobernua eskuinera aldatuko dira segurki, baina eskualde berrian Roussetek segituko du buru izaten, bere politika ez baita ezkerrekoa, sozialistek politika anitz eskuinarekin batera bozkatzeko baitituzte.

Hori ez al da zure alderdiaren kontraesan bat?

Nolabait. Gure hautu politikoa da, ekologistek ez dugu igurikitzen gobernuan eragiteko beste molderik. Iraganean, berdeak gobernuen alternatiba izateko gisan izan ginen. Egun ez dugu gobernatzeko xantzarik, eta politikan beste gisaz aritzerik ez dugu ikusten. Herrien eta eskualdeen Europa eraiki nahi dugu, baina europar eraikuntzan estatuen arteko tirabirak batetik eta alderdi nagusiek botereari lotzeko nahia bestetik, ekologistek ez dugu aukerarik ukan. Ekologistak ez gara bakarrik beste Europa bat eraikitzerakoan. Hemen, Alain Lamassoure da horren adibidea. Alabaina, estatuen jakobinismoa indartu da Europako boterera heltzeko. Halaber, Parisko legebiltzarretan gure hautetsiek botere handiegia hartu dute. Boterearen esferetan arazo izugarria dago. European ari diren berdeak, berriz, errazago atxikitzen zaizkie alderdiaren xedeei.

Zer lortu duzue berdeek alderdi sozialistaren gobernua sostengatuz?

Gobernantzan gardentasuna nahi ge-

nuen, hautetsiek ukaiten dugun dirua lanaren arau izatea, hau da, ez bagara Kontseilura lanera joaten deus ez irabaztea. Zerbait lortu dugu, ez baitzen deus eginik. Ekonomia sozial eta solidarioan aurrekontua bikoiztu dugu, lekuko eragileekin aritzeko arau bereziak ezarriz. Klimari buruzko plangintza berria proposatu dugu, 300 neurri berriekin, baita *Prevoir pour agir* (Ekiteko aurreikusi) liburua publikatu ere. Etxeetako energia arraberritzeko proposamen zenbait bete dira. Kanbo-Garazi arteko trenbidea berritzea lortu dugu; gauza handia da. Eskualdean arazo handiena SNCF konpainiarekin akomeatzea da, ez da erraza. Trenak kendu nahi dituzte. Trena erabiltzen dutenek arazoak dituzte. Tokiko tren arruntak dira eskualdean plantan ezarri behar direnak, baina ez dugu lortu oraino.

Zertan da AHTren proiektua?

AHTri buruz gatazkan aritu gara Alain Roussetekin, gu AHTren kontra gaude. Gobernuak AHTren aldeko mozio batzuk aurkeztu ditu eta eskuinak bozkatu ditu sozialistekin, komunistak barne.



Berdeek ez dugu aski pisu eskualdean, baina gure ezetzari esker mozio horiek ez dira bozkatuak izan aho batez, eta proiektua ez da aitzina joan. Gure ordezkariak ttipia da -85 aulkietatik 10 ditugu- baina rol garrantzitsua jokatzeko dugu. Ez du irudi, baina oposizioa gure politikak eragin du.

Txosten ofizialak AHT ez dela egokia dio, baina proiektua aitzina doa.

Maleruski. Hasteko, zertarako egiten dira inkesta horiek, jendearen gehien- goa kontra agerturik ere, gero ez badi- ra errespetatzen? Gizartearen gehien- goak ez du AHT nahi, baina ezarri nahi dute. Hor defizit demokratikoa dago. Laborantzarako lurak suntsitzeaz gain, proiektuak alimaleko defizitak ekarri ditu jada. Estatuen Europa eraiki ahala, hiri handiak hurbildu nahi dituzte, alta, haien artean hutsune izugarriak geldit- zen ari dira, hurbileko herrien arteko biztanleen komunikazioa galtzen ari da. Adibidez, Baionatik nahi baduzu hiri handi batera joan, denboran azkarrago da lehenik Parisera joatea eta handik Marseillara. Hemendik Marseillara joa-

tea biziki konplikatu da. Erotzeko gi- san gaude. Estatuaren zentraltasuna are gehiago indartzen ari da.

Zer iritzi duzu Akitania, Limousin eta Poi- tou-Charantes eskualde berriaz?

Frantziako Estatua kontzentrazioan eraiki da. Zentraltasuna Parisen finka- tua izan da orain arte, eta geroan, es- kualde berrien bitartez ezarriko da. Oraingoa ez da okerragoa izanen, baina hobe ere ez. Eskualde handi horien bi- dez Parisek botere pixka bat galduko du eta Bordelek irabaziko, beraz, hori ez da deszentralizatzea. Nik ez nuke eskual- dea handituko. Departamendua ken- du ondoren, eskualdeek botere gehiago hartuko dute, horregatik euskaldunok beharrezkoa dugu Lurralde Kolektibi- tatea.

Euskal Kosta-Aturri hirigunea Herri Elkar- go bakarraren kontra agertu da.

Hiri handietako hautetsi horien poli- tika egoista da. Hirigune azkarra nahi dute eta laborantza munduko herriak alde batera utzi. Alta, baserriaren beha- rra baloratu beharko lukete. Barazkiak

“Hegoaldeko gobernuarekin harreman normalizatua izateko funtsezkoa da Euskal Herri Elkargoa ukaitea”, erran digu Iparraldeko ekologisten bozeramaileak.

“Berdeek ez dugu aski pisu eskualdean, baina gure ezetzari esker mozio horiek ez dira bozkatuak izan aho batez, eta AHTren proiektua ez da aitzina joan”

nork lantzen ditu, nork kabalak hazten? Gizartea elkartasunez behar da eraiki. Auzapez horiek ohartu behar lukete gi- zarte zibila eta hautetsien gehiengoa aspaldi ari garela elkarrekin lanean, alderdi guztietako hautetsiak gaudela desmarta horretan. Iraganeko politika- ri *notableen* garaia fini da.

Euskal instituzioa egingarria ikusten duzu?

Herri Elkargoa plantan jartzeko kapable gara euskaldunok. Elkargoa eraikitze-ko auzapez bakoitzak boz bat dauka, eta aukeratzeko mekanismoak molde orekatuan jarri dira. Orain diren bitartekoekin euskal instituzioa erdiesteko oinarriak sendoak dira, ni baikorra naiz.

Zein da ekologisten ekarpena Iparraldeko politikan?

Guk ez dugu anitz hautetsi herrietan. Herri Elkargoak ez digu ekologistei ordezkari edo botere gehiago ekarriko, baina Euskal Herriarentzako instituzioa aldarrikatzen dugu fermuki. Instituzioa eraikitze-ko prozedura gure politikaren ikusmoldean sartzen da. Abertzaleek Euskal Herriko politikari ematen diote lehentasuna, gu berriz, Estatuaren eta Europaren eskalan ari gara ikuspuntu ekologistatik. Alderdien artean ez dugu harreman organikorik, baina gizarte kolektiboetan ari gara. Adibidez, hor dugu Bizi! mugimendua, ez da lotzen ezein alderdi politikori, denei irekia da. Horrelako mugimenduak beharrezkoak dira. Alta, guk gizarte mugimenduei eskatzen diegu alderdi politikoen ordezkariekin harremanak izatea, hautetsiak instituzioetan ari direlako, ontsalaz herritarren nahiak erdiesteko. Berdin laborarien munduan. Lurrama azoka izan berri da, eta ekologistek ere ardura hartu dugu. Arazoa da, jende anitz ekologisten alde izanik ere, horiek ez doazela bozkatzea, sistemaren aurkakoak direlako. Hautu bat da, baina sistemak aurrera segitzen du beren boza kontuan hartu gabe. Hor arazo handia daukagu. Sistema politiko hau ez da nahi gure bezain demokratikoa, ados, baina,

maleruski jende anitzek eskuin muturrari boza ematen diote, gizarte gaietan inolako inplikaziorik hartu gabe.

Eskualdea handituko dela kontuan harturik, nola ikusten duzu Akitania-Euskadi mugaz gaindiko erakundearen bilakaera?

Akitania-Euskadi funtsean Ipar Euskal Herriaren gainetik pasa da. Guk, hala ere, organismo horretan lan egin dugu, ez baita aulkirik hutsik utzi behar. Lehen Lot-et-Garonne, Dordoina eta Hegoaldearen arteko lotura nekeza bazen, orain Limousin eta Poitou-Charentes barnean badaude, herritar askok ez daki zein eskualdean dauden. Ez dute deus ikustekorik Euskal Herriarekin, horregatik Hegoaldeko gobernuekin harreman normalizatua izateko funtsezkoa da Euskal Herri Elkargoa ukaitea. Orain arteko eskualdea handiegia izan bada Euskadirekin harremana sustatzeko, bada aurrerantzean gaitzagoa.


“Eskualdeek botere gehiago hartuko dute, horregatik euskaldunok Lurralde Kolektibitatea behar dugu”

EH Baik zuria bozkatzea deituko du. “Ipar Euskal Herriak eskualde handi horretan lekurik ez du”, erran du.

Errespetatzen dut beren deliberoa. Alabaina, ezin dugu Kontseiluan hartzen diren deliberoei kasu ez eman, gu horren barnean gaude. Eskualdeko gobernuak erabakiak hartuko ditu gure eguneroko beharrei buruz. Ez badituzu ordezkariak hautatzen, beste batzuek hartzen dute zure aulkia. Beste hautetsiek beren politika ezartzen dute, enetako dolugarria da EH Bairen hautua. Abertzaleek indarra hartu dute. Azken herri bozetan hautetsi anitz irabazi dute eta eskualdean ere entseatu beharko lukete.

Agian ez dute normaltasun politikorik ikusten. Bake prozesuari lehentasuna eman nahi diote.

Alta, ekologistak lurraldearen egituraketan ari gara, baita Euskal Herriak behar duen bake prozesuan ere. Anitz gauzetan ari gara lanean alderdi guztiak elkarrekin. Frantzia ez da beste inon hori ematen. Beraz, oraingo bozketatik kanpo geratzea domia da. Gu anitz gauzetan ados gaude EH Bairekin. Borroka armatuaren aroa ez da horrela gelditu behar, gatazka ez da bukatzen batek bestea zanpatuz eta ezagutu gabe. Horrela eginez gero herra gelditzen da, gatazka noiznahi berpizten ahal da. Gatazken historian sekula ez da horrela egin. Gerlaren ondoren bakealdia finkatzeko lehenik elkarrekin mintzatu behar da biktima guztiak ezagutzeko. Beraz, bi estatuek bizikidetzat sustatuko duen prozesuan parte hartu behar dute absolutuki. Baina arranguratua naiz, estatuek oldarrean segitzea nahiago dutela iruditzen zait. ■



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuetan adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com